

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko uztailaren 9an arratsaldeko hirurak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Bilkura, horretarako egindako aurretiazko deialdia egin eta gero egin da, honen iragarkia Udaletxeko iragarki ohelean deialdia eta gai zerrenda ezarririk egin delarik

Ezohikoa, eta lehendakaritzak publiko deklaraturiko bilkura irekirik eta hasteko beharrezkoa den asistentzia quoruma idazkariak egiaztatu duelarik, gai zerrendaren hurrengo gai honi ekinen zaio:

1. BETELUKO "SORGINTXO HAUR ESKOLA" HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEAN HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO PROZEDURAN ATZERA EGITEA

Beteluko Udaleko udalbatzak, 2025eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" Haur hezkuntzako lehen zikloa kudeatzeko administrazio zehatzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartu zuen.

Horren ondotik, lizitazioa Nafarroako kontratazio atarian eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ikusita onartutako kudeatzeko administrazio zehatzetan lizitazio prezioa eta kontratuaren balio zenbatetsia gaizki ezarri zirela akats baten ondorioz

Ikusita Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 103. Artikuluan prozedurari uko egiteko aukera aurreikusten dela

Beteluko Udaleko udalbatzak aho batez onartu du:

Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" Haur hezkuntzako lehen zikloa kudeatzeko lizitazio prozedurari uko egitea.

2. HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA BETELUKO "SORGINTXO HAUR ESKOLA" HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEAN

Beteluko Udalaren asmoa da Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Zentroko haur hezkuntzako zerbitzuaren kudeaketa esleitzea, Beteluko Antigua kaleko 5. zenbakiko behealdean.

Zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko hasitako kontratazio-espedientea aztertu da.

Honako hau erabaki da:

1. Administrazio-klausula zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
2. Kontratazio-mahai hau izendatzea, zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko proposamena egiteko:

Presidenteak: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna

Mahaikideak:

- Ainhoa Iriarte Gorostegui Laskurain Ikastolako irakaslea.
- Cristina Val Sardon, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Igor Otermin Eguia, Beteluko Udaleko zinegotzia.

Mahaikide-idazkaria: Joanes Aleman Ollo

Goizeko hirurak eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.